

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Erregelamendua:	1992/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, Erkidegoan barrena mugitzen diren besteren konturako langileei, norberaren konturako langileei eta haien familiei gizarte segurantzako erregimenak aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 1408/71 (EEE) Erregelamendua aldatzen duena.
-----------------	---

---

Ondoko itzulpen hau Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

I

*(Ekintza hauek aplikatzeko, argitaratu egin behar dira)*

**1992/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,  
2006ko abenduaren 18koa,**

**Erkidegoan barrena mugitzen diren besteren konturako langileei, norberaren konturako langileei eta haien  
familiei gizarte segurantzako erregimenak aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 1408/71 (EEE)  
Erregelamendua aldatzen duena**

**(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak eta, bereziki,  
haren 42. eta 308. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena  
aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari  
jarraiki <sup>(2)</sup>,

Honako hauek gogoan hartuta:

(3) Herbeheretako gaixotasun-aseguruaren erregimenaren oinarritzko erreforma 2006ko urtarilaren lehen sartzan indarrean. Beraz, erreforma hori indarrean sartu zen egunetik Europako koordinazio-xedapenetan zuzen islaturik dagoela bermatzeko, eta gaixotasun-prestazioen koordinazioari segurtasun juridikoa emateko, hau arautu behar da: 1408/71 (EEE) Erregelamenduen I eta VI eranskinetako aldaketak, gaixotasun-aseguruaren Herbeheretako araubidearen erreformari buruzkoak, atzeragiriazko ondorioekin aplikatuko direla 2006ko urtarilaren 1etik aurrera.

(4) Gizarte-segurantzaren alorrean besteren konturako langileak ez diren pertsonen gain neurri egokiak hartzeko, 308. artikuluan aipatutakoez gain, Tratatuak ez du beste ekintza-ahalmenik aurreikusten.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

*1. artikulua*

1408/71 (EEE) Erregelamenduko I., II., II. bis, III., IV. eta VI. Eranskinak aldatuko dira, Erregelamendu honek xedatutako moduan.

*2. artikulua*

Erregelamendu hau indarrean jarriko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hiru egunetara. Eranskinen 1. paragrafoko b) idatz-zatia eta 6. paragrafoko b) idatz-zatia, biak ere Herbeherei buruzkoak, 2006ko urtarilaren 1etik aurrera aplikatuko dira. Bestetik, 1408/71 (EEE) Erregelamenduen VI. eranskinen «Q. HERBEHEREAK» idazpuruaren 1 zenbakidun zatiko f) idatz-zatiaren seigarren gidoia, Erregelamendu honen Eranskinen 6. paragrafoko b) idatz-zatiak gehitua, artikulua honen lehenengo lerroan aurreikusitako egunetik aurrera aplikatuko da.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrez bete beharrekoak eta estatu kide guztien lurralde-esparruan zuzenean ezartzekoak dira.

Estrasburgoan, 2006ko abenduaren 18an.

<i>Europako Parlamentuaren izenean Presidentea</i>	<i>Kontseiluaren izenean Presidentea</i>
--	--

J. BORRELL FONTELLES      P. LEHTOMÄKI L

<sup>1</sup> 2006ko abenduaren 13ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko azaroaren 14koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.